

Herri Aldizkaria OTAMOTZ

QUEMALIZATZEN
ZINTZO
MINTZO
ELIABARTEA



□ Dagoeneko Zumarraga eta Urretxuko udal gobernuek erabat eratuta egon behar bazuten ere, Zumarragakoak bakarrik eratu da bere osotasunean. Zumarragan lau alderdi politikok PSE-EEK, EAK, EAJk eta HBk osatu dute gobernua eta guztira zortzi batzorde sortu dira. PSE-EEK bi batzorde zuzenduko ditu, ogasun eta lan batzordea eta hirigintza eta ingurugiroarena. EAK hiru batzorde gidatuko ditu, giza zerbitzuena, zerbitzuen batzordea eta diru kontuena. EAJ bi batzorderen buru arituko da, industria batzordea eta kultura, jai eta gazte batzordeaz arduratuko baita, eta HBk euskara batzordearen ardura izango du.

Urretxun momentuz, hiru alderdi politikok, PSE-EE, EA, eta HBk, osatu dute gobernua eta EAJ gobernutik kanpo

Nahiz eta eguraldiak bat ere lagundu ez zuen, jende mordoxka bildu zen uztailaren lehen egunean **ZINTZO MINTZO**ko gazte taldeak antolatutako euskararen aldeko giza katera. Ibilbidea Zumarraga eta Urretxun zehar egiteko asmoa bazegoen ere, eguraldi txarra zela eta Zumarragako enparantzan egin zen.

OTAMOTZen bidez, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete Irrintzi eta Lurra dantza taldeei, Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko txistulariei, Urretxu eta Zumarragako erraldoiei, Iratzarri dultzaina joleei, Zumarragako trikitixari, bi herrietako trikitilari gazteei, Zuhaitzaren soina kolektiboko txalapartariei, hanka paloei eta Urretxuko S.F.O. taldeari, ekitaldia girotzeko eskeini zuten laguntzagatik

geratu da ez duelako kultura batzordearen zuzendaritza lortu. Egun, Urretxun eratu beharreko zazpi batzordeetatik sei baino ez daude eratuak, hezkuntza batzordeaz arduratuko den talde politikoa izendatu gabe baitago oraindik ere. Hala ere, erabakita dago EA lau batzorderen buru arituko dela, ogasun batzordea, hirigintza batzordea, kultura eta jai batzordea eta gizarte eta osasun batzordea zuzenduko baititu. PSE-EEK bakarria gidatuko du, gaztedia eta kirol batzordea eta HBren gidaritzapean egongo da euskara batzordea.

Bestalde, Pello Gonzalez Argomaniz, Urretxuko alkatea, Urola Garaiko Mankomunitateko Lehendakari berria izango da hurrengo urteetan.

URRETXU
OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Iparragirre, 1 © 72 59 68 20700- URRETXU

KALITATEA • TEKNIKA • ZERBITZUA • MODA

UROLA

ELEKTRATRESNAK

© 72 02 15 - Faxe.: 72 52 91
S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA 20700

URRETXUKO UDALEKU IREKIAK



Haurrak ikasturtea amaitzen denean, zer egin ez dakitela, aspertu egiten dira. Neurri batean hau ekiditeko eta umeek elkar ezagutu, ondo pasa eta euskaraz hitz egin dezaten, udalekuena, aukera ezinhobea izaten da. Horregatik aurten ere, Urretxuko udalak Uztailaren 4tik 21era bitartean udaleku irekiak antolatu ditu, Aldundiak eskeinitako dirulaguntzaren bitartez.

Hiru astetan zehar Urretxu eta Zumarragako 6tik 11 urte bitarteko haurrek udalekuak eskaintzen dizkien ekintza desberdinetan gozatzeko aukera izan dute. Horretarako 10 begirale aritu dira lana koordinatzen.

Egunero goizeko 10etatik 13etara umeak Garaialde Lizeoan biltzen dira. Bertan, eskulturak, dantzak, kirolak eta jokuak egiten dituzte.

Horrez gain, uztailaren 7an, San Fermin eguna ospatzeko haur guztiak txuri-gorritz jantzi ziren eta buruhandiekin gozatu ahal izan zuten. Bi egunetan herriko igerilekuan egon dira. Herritik kanpora

irteera bakarria egin dute, egun berean Zumaia eta Getaria bisitatuz. Naturarekin harreman zuzena izateko asmoz, Santa Barbara eta Antiora igo izan dira. Antioiko irteera egunean, Euskal Telebista etorri zen erreportaia egiteko asmoz. Umeak izan ziren protagonista nagusiak eta oso esperientzia polita bizi izan zuten, hurrengo egunean telebistan agertu baitziren.

Helburuetako bat partaideen arteko harremanak eta gizarte loturak sendotzea da

Udaleku hauen helburu nagusia euskara lantzea da. Haur askok guraso erdaldunak dituztela kontutan

hartuz, euskaraz bizitzen jarraitzeko aukera luzatu nahi izan zaie. Hala-ber, euskara eskolaz kanpoko zerbait bezala planteatu nahi da, haur askok euskara ikasgai modura soilik ulertzen baitute.

Begiraleen esanetan, euskarari dagokion helburuaren balorazioa oso baikorra izan da, urtetik urtera umeek gehiago hitzegiten dutelako euskaraz euren artean.

Beste helburuetako bat partaideen arteko harremanak eta gizarte loturak sendotzea da. Ikastetxe desberdinetako haurrak daudenez, udaleku hauek haurrek elkar ezagutzeko oso baliogarriak izaten dira.

3.000 m2 ALTZARIZ JANTZITA	
	
Iparragirre, 42 ☎ 72 01 56 URRETXU	
ZURE ETXEA APAINTZEKO	

	
KRISTALDEGIA	
Ipeñarrieta, 18 20700 URRETXU	☎ 72 14 13

MASTER - Hezkor CADENA
Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena
Prezio eta modeloetan aukera benetan aparta!
Urdaneta Hiribidea, 5 ☎ 72 41 31 20700 ZUMARRAGA


KIROL DENDA
Gernikako Arbola plaza 5, behe A 20700 URRETXU Tel: 72 59 71

IKASTOLAKO UDALEKUEN KONTUAK



Haur talde bat udalekutan

70. hamarkadan Jose Agustin Orbegoza, hasi zen lehen aldiz, Lourdesko Ama ikastolak, beste ikastola askok ez bezala berezkoak dituen udalekuen antolaketa lanetan. Udalekuen orduko helburua haurrak etxetik kanpo eta lagunekin bizitzen ikastea zen eta oraindik ere bere horretan jarraitzen du.

Lehen urteetan Logroñon egiten zen egonaldia, baina beranduago Corella, Monasterio de Iranzu, San Asensio eta La Puebla de Labarcan pasa dituzte herriko haur ugarik, eta zenbaitetan ormaiztiar eta legazpiarrek ere, oporretako hamabost egun.

Aita Jesus Marik urte batzuk beranduago, udalekuen kargua hartu zuenean, hasi ziren herriko gazteak begirale moduan udalekuetara joaten, ordurarte irakasleak joaten baitziren hurrekin egotera. Eta datu aipagarri bezala esan behar da, berrogeita hamar begiraletik gora izan direla udalekuetan urte guzti hauetan.

Haurrak etxetik kanpo dauden hamabost egunetan

ahalik eta ondoen ibil daitezten, antzerki, joku, ibilaldi eta ekintza ugari prestatzeaz arduratzen dira hauek.

Aita Jesus Marik kargua utzi ondoren, 80. urtetik egunera, Juan Mari Balenziaga dabil, beti ere Asun Larrañaga, emaztearen laguntzarekin batera antolaketa lanetan. Udalekuen behar bezalako antolaketak lan handia eskatzen du, arazorik egon ez dadin, bi hilabete aurretik hasi behar da lanean. Prestatuta eraman behar da egun bakoitzeko programa, haurrek gustokoak dituzten joku eta jolasak noiz eta nola egin, aurretik zehaztu behar da. Honetaz gain, etxera etorritakoan, egonaldiaren balorazioa, kontuak eta txostena ere egin behar dira. Beste hilabete bateko lana suposatzen du honek.

Aipatzekoa da, duela bost urte arte, La Pueblara joan arte oporretako hamabost egunetan lagun ugarik lan handia egin duela sukaldari moduan. Beraz, argi dago udalekuek hainbeste urtetan iraun badute, isilean egin den lanagatik izan dela neurri handian.



Haurrak antzerkia egiten



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA



JAKIN

*Bulegoko eta merkataritzako
makinen salmenta eta
konponketa*

Labeaga, 12 © 72 36 08 20700 URRETXU



ILLARGI, E.A. okindegia

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU



ZURICH

Aseguruak


Agustin Elias Larrea
Erregistro zenbakia: 2072563049 G

© 72 37 76

Faxa: 72 53 46

Labeaga 33-G etxeazpia 20700 URRETXU

Ze asmo duzu oporretarako?



Jose Antonio Mendizabal

Astebeterako lagunekin kanpora joateko asmoa dut, baina bitartean hondartzara eta igerilekutara joan eta inguruko festa guztiak aprobetxatzeko intentzioa dut.



Estibaliz Gutierrez

Abuztuan lana egin behar dut, baina hala ere igerilekutara joango naiz eta egun gutxi batzutarako kanpora irtetzeko asmoa ere badut.



Miriam Ran

Abuztuan Benidormera noa, bertan hondartzara eta igerilekutara joango naiz eta asko jolastuko dut. Tarea piska bat ere egin behar dut.



Koldo Agirre

Koadrilarekin batera Santiagoko bidea egiteko asmoa dut. Gainontzean, denbora ahalik eta ondoen aprobetxatuko dut eta inguruko herritako festetara ere joango naiz.



Garaiak agintzen duen bezala, Juanjo Kerejeta oporretan pentsatzen ari da.

Zortzi urte daramatza elektrikari gisa, baina honek ez dio aukerarik kentzen Euskadiko herrietan zehar festarik festa ibiltzeko, eta aurtengo oporretan, iaz bezala, zeregin honetan arituko da.

Jadanik Juanjo ezaguna dugu gure artean duen martxarengatik eta transmititzen duen alaitasunagatik.

Dena den, bere astialdia ez da soilik festatan oinarritzen, beste hainbat ekintza ere gogoko ditu: musika, txirrindularitza, futbola... eta, nola ez!, berak dioen bezala "neskekin denbora galtzea".

Hala ere, denboraren igarotzea ez da makala eta dagoeneko bere gorputza ez da hamasei urteko mutil koxkor batena.

Neguak bestelakoak izaten dira, eski zalea denez, negu parteko asteburuak Pirineotan pasatzen ditu, bere afiziorik gogokoenetarikoa praktikatzan. Honek lasaitasunerako aukera ematen dio.

Askoren antzera bere ametsetariko bat lan egin gabe bizi ahal izatea da baina, amets hau bete bitartean, lanean jarraitu beharko du gustokoak dituen ekintzak egin ahal izateko. Ea noizbait bere ametsa egia bihurtzen den!!

JUANJO KEREJETA

EDURNE

Punta puntako moda
Aukerarik hoberena
gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA



TXINATAR
JATETXEA

Eguneko menua: 795 pta.

Menu bereziak

109 plater ezberdin

Labeaga 33
(Madaya)

URRETXU

© 72 52 43

BIONA


AROTEGIA

© eta Faxe: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kuxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

TERRAZAK ETA UDA: COCKTAIL FRESKOA

Hasiera batean Madril eta Bartzelonan ikusten zirenak soilik, gaur egun Urretxu Zumarragako edozein tabernak dauka. Uda bateko birusa zirudien terrazen fenomenoak gure herriotan habia egin du



Oporren kutsua dute, baina hauen erabilpena luzatzen da gehienetan, nahiz eta orain den bere garairik oparoena. Kuadrila, bikote, familia... bildu eta bertan esertzearekin bat edari freskagarrak hartu eta beste hainbesteren artean giroa dastatzeko aukera paregabea eskaintzen dute.

"Barruan egoteak ez du merezi, gauean kanpoko tenperatura oso atsegina izaten baita"

Gauetan freskotasunak bereziki horretara gonbidatzen duelako, arratsaldean, igerileku, hondartza edota menditik itzulita erritual ekidiezin baten kutsua hartzen duelako edota igandean sermoia barneratzeko eta biramona baretzeko zerbait edatea ongi datorrelako, aitzakiak bukaezinak

dira terraza batean esertzeko.

Zumarraga eta Urretxun gainera, plazak ugaltu egin dira azken eraikuntzen ondoren, eta hau onuragarria da bertan mahai eta aulki zuriak jartzeko. Areizaga



Plazan esatebaterako terraza ugari jarri dituzte azken aldian. Herriaren udako jantzi bilakatu dira, jantzi uniforme gainera, bakoitzak bere berezitasuna izan arren, antzekoak izanik.

Ingurua, itzal eta eguzki guneak, giroa eta, nola ez!, kamareroa, ezinbesteko elementu dira terraza katalogatzeko orduan. Herritarrek gustora hartzen dituzte, terrazazale batek dioen bezala "barruan egoteak ez du merezi, gauean kanpoko tenperatura oso atsegina izaten baita. Egunez ordea, barruan fresko-xoago egoten da batzuetan, baina terrazetako giroak gehiago erakartzen gaitu".

Tenperatura freskoagoa den edo ez alde batera utzita, *nork baztertzen du kaleko txutxumutxuak udako eguzki edota ilargipean?*

Munch

Barne jantziak - Lencería

Legazpi, 9 © 72 43 58 ZUMARRAGA
San Martín, 18 © 42 42 14 DONOSTIA

LIBURUENDAK

GANBARA

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45
20700 URRETXU

belardenda

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga, 31
20700 URRETXU

© 72 27 80



Aurten ere Geltokietako jaietako egitarauaren barnean Probinzian eta Euskal Herri osoan famatua den asto lasterketa ospatu zen. Lasarteko hipikako arduradunak ere hemen izan ziren hockey berriak aurkitzeko asmoz. Hauek adierazi zutenez, astoek erakutsitako maila oso ona izan zen, hockeyak berriz, astotako hobeak zirela aitortu zuten.

ANTIA

Luis Mitxelenak bere Apellidos Vascos hiztegiaren abizen ezagun honen jatorria "(h)andia" izenetik datorkeela esaten digu Andia abizenaren forma arkaikoaren moduan, eta datorkeela diogu zeren eta etimologia ez baita inoiz zientzia arlo zehatza izan. Dena dela, Urretxu eta Zumarragako antiatarrek ereindako hazia aspaldian ondotxo jaso zuten. 1830eko maiatzaren 6an, Urretxun Manuel Antonio Antia apaiza eta erlijio gizona jaio zen. Bere bizitza osoan zehar toki askotan lanean aritu zen (Leitzan kaperau, Urnietan bikario ...).

Jainkoarekiko fedea erakutsi ezezik, erlijioarekin lotutako liburu eta lan sorta pila idatzi ere egin zuen (Zeruko bide zuzena eta segurua, karmeltar debotoarentzat ikasbidea, San Joseren zazpi igandeetako jayera (1867), Kristaua elizan (1878), Jessusen Biotz Sagraduco deboziozco liburucha (1887)). Euskal jaietan antolatzaile lanetan aritzeaz gain, "Euskal-E." eta "Euskalzale" aldizkarietan ere parte hartu zuen. Dirudienez badira oraindik ere Manuel Antonio Antiaren argitaratu gabeko lanak. 1894ko ilbeltzaren 21ean hil zen, 64 urte zituela.

IMPORTAZIO BERRIAK
CAPADOCIA
ALIRONBRAK - KILIMI - CICIMI - SUMIAK
Zuzeneko inportatzailea
Konponketak egiten dira
Labeaga 12, etxeazpia 20700 URRETXU
© 72 17 71


Mutua General de Seguros
Iparragirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU © 72 25 99

ITURGINTZA

LUIS ANGEL
Gure erakusketan zain
gaituzu!
Deskargarako bidea, z/g, © eta Faxe: 72 54 59

ELIZ - KALE

AUTOESKOLA
Bidezar, 111
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU
HEGIALDE AUTO
● KONPONKETAK OROKORREAN
● IBILGAILU SALMENTA
● GARBIKETA ZUBIA
ZERRBITZU OFIZIALA

Mugitegi, 17 © 72 51 37 - URRETXU

ZAPATAK

Otik 40 zenbakiraino
Eliz Kale, 7 © 72 54 39 20700 ZUMARRAGA

UROLA FUTBOL TALDEA

Zutik: ABASOLO
entrenatzailea,
AGIRRE, ALDEA,
BADIOLA, ORTIZ,
EZKIO (Idiakes),
SORIA eta ANDONI
Makurtuta:
IZAGIRRE,
MADARIAGA,
ALDAMA, ZUBIATE,
ITURBE,
ARANBURU,
MATIAS,
GARRALDA eta
GORGONIO masajista
(Fontxo)



arteko hogeita hamabost gazte ari dira futbol-eskolan.

Ikusten denez, harrobia ederki asko lantzen ari dira, horren frogagarri da gaur egunean lehenengo taldean, hirugarren mailan, denak, bi legazpiar izan ezik, gainontzekoak Urretxu eta Zumarragako jokalaria izatea. Aurten kadete bat, Alberto Alejandro, errealk fitxatu duela ere aipatu behar dugu.

Uztailaren bukaera iristean, guztiontzat oporrak heltzearekin daudenean, UROLAko jokalariek, 3. mailakoek eta erregionaleko lehenengo mailakoek, gogor ekin diote entrenatzeari uztailaren 26an, irailaren 3an eta 10ean, hurrenez hurren, hasiera emango baitzaio denboraldiari, eta denboraldi honetan iaz bezain emaitza onak edo hobeak (mailan igo edo play off delakoa jokatu) atera nahi baitituzte.

Urola dagoen tokian baldin badago makina bat jende hainbat urtetan lan ikaragarria egin duelako da. Taldeak dagoeneko historia luzea du, 1936an partiduak jokatu zituen eta 1938an federatuta, beti UROLA izenez, zegoela jakin badakigu.

Garai batean Orbegozo lantegi ondoko Jauregi zelaian, Julian taberna ondoan zehatzago esateko, jokatzen ziren partiduak. Etenaldia izan ondoren, 1971.eko maiatzaren 11an ekin zioten berriz, oraingo

honetan Argixao futbol zelaian. Hori dela eta, aurtengo denboraldian hogeita bost urteak ospatzeko ekitaldi bereziak antolatzeak asmoa egon ere badago.

Gaur egunean, zazpi talde federatuta dauzkate: infantilak, bigarren mailako kadeteak, ohorezko ligako kadeteak, lehenengo mailako jubenilak, ohorezko ligako jubenilak, lehenengo mailako errejionala eta hirugarren maila. Horrez gain, hamar hamahiru urte

Jokalaria guzti hauen atzean talde ona ari da lanean Ansorena buru dutela. Bederatzi entrenatzaile eta hamasei direktibo, aukeran gutxiegi dagoen lanerako, dihardute.

Ekonomia arloan, bostehun eta hogeitaz baxkideen kuotaz gain, bi udalen eta sponsor baten laguntzak dituzte. Honi errifan eta loteriarren bidez lortutakoak gehitu behar zaizkio, dena behar baitu UROLA taldeak daraman bide onetik jarraitzeko.



Goian: Elizondo,
Garmendia, Diaz,
Badiola, Nuñez,
Oianlaze, Esmal
Erdian: Garaio,
Hurtado, Iruola,
Urbizu, Biana, Aldalur,
Urmenea, Mauleon,
Jan Mikel
Eserita: Alonso,
Mesonero, Juanjo,
Serrano, Aramburu,
Ansorena, Allustiza,
Gordo, Garmendia,
Arakama

INSALUS

ANDUEZA

banaketa zerbitzua

Mugitegi, 85
20700 URRETXU © 72 51 82



RENEDO argazkiak

Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 32-34 F 20700 © 72 56 82
URRETXU 72 22 92



ARDANTZE

Nekolalde, 1 © 72 56 19
Almazena © 72 58 71 URRETXU

ANDRA MARI EGUNA

Abuztuak 15: Andra Mari eguna ospatzeko **IRRINTZI** dantza taldeak ezpatadantza dantzatuko du Zumarragako Jasokundearen parrokiaren goizeko 11etako meza nagusian, bertan udal ordezkariak izango dira.

12:30etan, aureskua dantzatuko dute Euskadi enparantzan.



Aurtengo uda honetan oso kontutan hartu behar duzuna Pagoeta alde horretan dagoen igerileku ezin hobe eta ezin atsegina da. Uztailean arrakasta handia izan du baina lasai, abuztuaren izango da zuretzat adinako lekua plisti-plasta ederrak egiteko eta Kariben baino kolore politagoa (eta autoktonoagoa noski) hartzeko, bai horixe!



Aitor Larrañaga, 11 urte beteko ditu abuztuaren 2an. **Gainzuri** ikastetxekoa.



Bego Etzaniz, 36 urte beteko ditu abuztuaren 2an.



Jon Gabilondo, 38 urte beteko ditu abuztuaren 2an.



Josune Larreina, 24 urte beteko ditu abuztuaren 8an.




Jon Balenziaga, 21 urte beteko ditu abuztuaren 13an.



Julen Larrañaga, 5 urte beteko ditu abuztuaren 30ean. **Lourdesko Ama** ikastolakoa.

URRETXUKO



ALDAPA